

## ONOMASTIKAZ II. JARDUNALDIAK

(Urduña, 1987-IX-23,24,25,26)

Fr. Luis Villasante

### EUSKALTZAINBURUAREN SARRERA-HITZAK

Joseba arregi, Kultura Kontseilari jaun agurgarria  
Tomas Uribe--Etxebarria jauna, Bizkaiko Kultur-Diputatua  
Ana Mari Barañano andrea, Urduña hiriko alkatesa  
M.<sup>a</sup> Karmen Garmendia andrea, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzaren  
arduraduna.

Eugenio Coseriu, hizkuntzalari jaun jakintsua  
Euskaltzainkideak

Urduñarrak eta Jardunaldi hauetan parte hartzera etorri zareten guztiok: Agur denoi!

Euskaltzaindiak bere galtzarrean dituen batzordeetan bada bat Toponimi-, eta orain, egokiago, Onomastika-Batzordea deitzen duguna. Egoikiago esan dut, zeren Onomastika izenaz hobeki inguratzen baita batzorde honek azterkizun duen eremua. Bai pertsona-izenak, bai toki-izenak, bi-biak sartzen dira *onoma* hitzaren azpian.

Batzorde honek aurrenengo Jardunaldiak, jakina denez, iaz eta Gasteizen egin zituen, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz antolatuak. Arrakasta ezin hobea izan zutela uste dut. Jardunaldi haietako lan eta agiriak aurki kalean ikustekotan gaude.

Oraingo hauek bigarrenak ditugu, bada.

Aurrenengoak Onomastikaren eremu zabalari orotariko gain-begiratu bat emateko izan ziren. Beraz, disziplina honetako —nolabait esan— problemak zein diren, sail honetan langile edo biltzaile izan nahi dutenak nola behar duten joka, beste lurraldetan zer egiten den, etab ikusi: hori egin nahi zen eta egin ere zen orduan. Hitz gutiz eta laburzki esateko,

sail honetan lan egiteko bere burua jantzi nahi duenarentzat behar diren erizpide eta jokamoldeak azaldu ziren. Hori behar-beharrezkoa da, zeren borondaterik onenaz, baina behar bezalako jakintzarik gabe, alor honetan makurrak egiten direla egunoro ikusten baitugu.

Bigarren Jardunaldi hauetan hasi gara gaia nolabait mugatzen. Eta hara zein den oraiko hautatu dugun esparrua: Gaur euskaldun ez diren eskualdetako euskal toponimi edo onomastika. Izan ere, gaur euskaldun ez diren baina behiala euskaldun izan ziren lekuetako Onomastikak baditu bere problema berezi-bereziak, kontutan hartu beharrekoak direnak. Horiek nahi ditugu, bada, aztertu oraingo Jardunaldi hauetan.

Bai. Esparru honetako ikerketek zailtasun berariazkoak dituzte. Euskaraz landara beste hizkuntza batzuk ere tartean ditugula jakin behar da. Euskal izen batzuk beste hizkuntzara itzuliak izan ziren, beste batzuk aldatu, itxuragabetu, aldrebestu etab. Gauzak argitzea ez da beti erraz izaten. Metodologia bat hotz-hotzean erabili beharra dago.

Onomastikako mundu honen azterketak duen garrantziaz ez dugu luzaz hitz egin beharrik. Bakar-bakarrik esango dugu herri baten eta hizkuntza baten kulturaren alderdi esanguratsuenetakoa dela Onomastika. Eta herri hori Euskal Herria eta hizkuntza hori euskara denean, azterketok guretzat duten nondik-norakoa berez ulertzen da.

Bigarren Jardunaldiok Urduñako hiri honetan egiten dira. Urduña, Bizkaiaren maiorazgoa, "la ciudad del Señorío". "Tierra llana, villas y ciudad": horrela adierazten zuten aintzina Bizkaiko lurraldearen edukina. Zilegi izan bekik gure fraide lekeitiar batek, Modesto Sarasolak, ateratako histori-lana hemèn aipatzea (1).

Zer dela eta egiten dira hemen Jardunaldiok? Licenciado Poza, Bilbon kale ezagun bat duena, hemengo semea zelako, eta aurten, hain zuzen, 400 urte betetzen dira haren liburua *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas*, Bilbon, Mathias Maresen inprimategian agertu zenetik. Euskaltzaindiak uste izan du ez zuela urte-muga hau igarotzen utzi behar jaun honen oroitzapena egin gabe. Horra zergatik etorri den Euskaltzaindia Urduñara, eta zergatik egin nahi izan dituen Jardunaldi hauek Poza jaunaren oroitzapenetan.

Poza jauna euskararen apologista bat izan zen, noski, nahiz eta apologista huts-soila baino gehiago ere baden. Apologista haiek izen-lerrokada aski luzea betetzen dute euskararen kondairan: Etxabe, Zaldibia, D'Iharce de Bidassouet, Irizar y Moya, Perochegui, Larramendi, Erro, Astarloa, etab. Beren modura, baina lan eskergarria burutu zuten

(1) *La ciudad de Orduña y su vizcainia*, Bilbao 1954.

etxekoen eta kanpoken oharpena euskararuntz abiarazteko. Horien artean lehenbizikoenetakoa Poza jauna dugu.

Ez naiz ni hemen hasiko Licenciado Poza jaunaren bizitzea, obrak eta nortasuna arakatzan. Ni baino gaiago diren jaunek egingo dute hori Jardunaldi hauen sarrera-ekitaldi honetan.

Urduñako Jardunaldi hauek badute, gainera, zerbait apartekorik, orain arte gure biltzarretan ezagutu ez dugun zerbait: gure artean baitugu Eugenio Coseriu, errumaniar hizkuntzalari jakintsua. Euskaltzaindiak gomit egin zion, eta berak, Licenciado Pozaren izenean egiten zirela Jardunaldiok jakin zuenean, baiezkoa eman zigun, berak bere ikerketa-lanetan behin baino gehiagotan Poza jaunarekin topo egin duela esanez. Eskerrak eman nahi dizkiot bihotzez bere etorreragatik eta Jardunaldiotan parte hartzeagatik. Ohoragarri da guretzat honelako jaun ospetsua gure artean izatea.

Eta esan beharrik al dago? Eskerrak ematen dizkiet halaber Jardunaldiotan parte hartu nahi izan duten guztiei: antolatzaileei, Urduñako udalari eta aparteko modu batean bere laguntzaz eta itzalaz Jardunaldi hauek babesten dituen Bizkaiko Foru Diputazioari. Eta ez dut aipatu gabe utzi nahi Pozaren liburuaren argitalpen berria faksimilez aterea, eta hori ateratzeko lagundu digun Madrilgo Kultur Ministeritza.



Jardunaldiok Urduñan egiten dira, hots, gaur-egun euskaldun ez den eskualde batean —nahiz eta gaur ere, segur aski, berreuskalduntako ez guti bertan egon—. Alde honetatik ere Jardunaldion kokalekutzat aukeratu den tokia aproposa gertatu da, ezen euskaldun izandako tokien Onomastikaz ari da Biltzarra.

Hara zer dioen Aita Larramendik bere Hiztegiaren hitzaurrean: “El Licenciado Andrés de Poza, aunque de Orduña, en que hoi apenas se habla Bascuence, eruditísimo, y diestro Bascongado, en su Tratado Castellano y Latino de la antigua Lengua de España, y Balthasar de Echabe en otro semejante, defiende valientemente este asunto” (hau da, euskara dela Espainiako hizkuntza zaharra) (2).

Ikusten duzueenez, Aita Larramendiren garaian Urduña doi-doi edo ozta-ozta zen euskaldun, atzeraka zetorren ordurako hizkuntza hau hemen, beste toki askotan bezala (3). Dena den, Poza jaun famatuaren sortzaile dugu Urduña.

Eta beste gabe, ospakizun honetan mintzalari izango diren jaunei pasatzen diet hitza.

---

(2) *Diccionario Trilingüe*. Prólogo 2.<sup>a</sup> Parte. Cap. IX, p. LXXXVI.

(3) Dena dela *ozta* honek zerbait balio duela pentsa daiteke. Agian izango zen auzoren bat oraindik euskaldun zena.